7. La justificación de las faltas de asistencia del alumnado menor de edad debe ser realizada por escrito por las madres/padres o tutoras/es y presentada al profesorado correspondiente. El alumnado adulto justificará sus propias faltas.

8. No se considerará falta justificada la no asistencia a clase por otras actividades extraescolares tales como: Clases de idiomas, actividades deportivas, catequesis, ensayos de comparsas, excursiones escolares etc.

TÍTULO IV

DE LOS INSTRUMENTOS DE GESTIÓN Y EVALUACIÓN DEL CENTRO

SECCIÓN 1.ª La oferta educativa del centro

Artículo 37.

1. La Oferta Educativa del Centro es el instrumento de gestión por el que se determinan las plazas escolares existentes en la Escuela.

2. Anualmente la dirección del Centro dictará resolución determinando la Oferta Educativa del Centro, en la que se concretarán las plazas totales de cada especialidad y asignatura, así como las plazas vacantes que serán comprometidas en la oferta para nuevo alumnado.

3. La Oferta Educativa deberá adecuarse a las necesidades de la Escuela para buscar un equilibrio entre la demanda existente y los intereses de los grupos de la propia Escuela. Para ello se determinarán las franjas de edades así como los niveles.

4. La Dirección del Centro, con anterioridad a la aprobación formal de la Oferta Educativa y a modo orientativo para la preinscripción, podrá publicar una oferta estimativa de plazas vacantes que no comprometerá la Oferta Educativa definitiva.

5. Una vez terminada la matriculación del alumnado procedente del curso anterior, se procederá a calcular las plazas vacantes que serán comprometidas en la Oferta Educativa del Centro.

6. La Dirección podrá modificar los niveles y franjas de edades en caso que queden plazas libres una vez terminada la matriculación del alumnado.

7. Las vacantes por baja serán ocupadas por alumnado de las listas de espera o de preinscripciones fuera de plazo según lo dispuesto en el artículo 44.

2. ATALA. Eskolaren Urteko Plana (EUP)

38. artikulua.

1. Eskolak ikasturtea hasi aurretik Urteko Plana (EUP) prestatuko du; plan horrek hezkuntza-ekintza guztiak koordinatuko ditu, eta beren eskumenak zuzen betetzen direla eta eskola komunitateko arlo guztiek esku hartzen dutela bermatuko du.

2. Urteko programazio orokorra Eskolako Zuzendaritzak prestatuko du, kide bakarreko eta anitzeko organoekin kontsultatu ondoren.

39. artikulua.

Eskolaren Urteko Planak (EUP) atal hauek ditu:

- Irakaskuntza-plana edo irakaskuntza-jardueren plana.
- Langileen prestakuntza-plana.
- Eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien plana.

40. artikulua.

1. Eskola Kontseiluak onartu beharko du Eskolaren Urteko Plana (EUP).

2. Eskola Kontseiluak onartutakoan, Urteko Plana jende aurrean ikusgai jarriko da. Eskola komunitate osoaren esku egongo da, salbu eta informazio pribatua daukaten eranskinak; horiek ez dira publiko egingo.

3. ATALA. Urteko Memoria

41. artikulua.

1. Urteko Memoria eskola ebaluatzeko tresna da. Eskolaren Urteko Plana nola garatu den eta ikasturtean izan diren gorabehera guztiak ebaluatuko ditu, eta hurrengo Urteko Planean jaso beharreko hobekuntza proposamenak jasoko.

2. Dokumentu horrek honako hauek jaso beharko ditu:

- Gauzatzutako berrikuntza- eta hobekuntza-proiektu guzti buruzko txostena.
- Egindako eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarri guztien zerrenda eta balorazioa.
- Langileen prestakuntza-programaren balorazioa.
- Hurrengo Urteko Planari erantsi beharreko hobekuntza proposamenak.
- Amaitutako ikasturtean Musika Eskolak eginiko ekintza guztiak jasotzeko behar beste eranskin (irakasleen txostenak, matrikula datuak, sustapenak, bilera aktak, prentsan agertutako berriak).

42. artikulua.

1. Eskola Kontseiluak onartu beharko du Eskolaren Urteko Plana.

2. Eskola Kontseiluak onartutakoan, Urteko Memoria jende aurrean ikusgai jarriko da eta eskola komunitate osoaren esku egongo da.

V. TITULUA

EGOITZA ETA MATERIALA ERABILTZEA

43. artikulua.

1. Eskolaren instalazioak zabalik egongo dira asteleheneetik ostiralera, 12:30etik 21:30era, Eskola Egutegian jasota datozen eskola garai osoan.

SECCIÓN 2.ª El Plan Anual de Centro (PAC)

Artículo 38.

1. La Escuela elaborará el Plan Anual de Centro (PAC), antes del inicio del curso, el cual, garantizará el desarrollo coordinado de todas las actividades educativas, el correcto ejercicio de sus competencias y la participación de todos los colectivos.

2. La programación general anual será elaborada por la Dirección del Centro, previa consulta, a otros órganos colegiados y unipersonales.

Artículo 39.

El Plan Anual de Centro (PAC) constará de las siguientes partes:

- Plan Docente o de Actividades Docentes.
- Programa de Formación del Personal.
- Plan de Actividades Complementarias y Extraescolares.

Artículo 40.

1. El Plan Anual de Centro (PAC), será aprobado por el Consejo Escolar.

2. Una vez aprobado por el Consejo Escolar, este Plan Anual, se hará público y quedará a disposición de toda la Comunidad excepto los anexos que contengan información privada.

SECCIÓN 3.ª La Memoria Anual

Artículo 41.

1. La Memoria Anual es el instrumento de evaluación del Centro. Evaluará el desarrollo del Plan Anual de Centro, todas las incidencias surgidas en el curso, así como las propuestas de mejora que deban ser incorporadas al próximo Plan Anual.

2. En dicho documento, se deberán incluir:

- Un informe sobre todos los proyectos de innovación y mejora realizados.
- La relación y valoración de las actividades extraescolares y complementarias realizadas.
- La valoración del Programa de Formación del Personal.
- Propuestas de mejora a ser incorporadas al próximo Plan Anual.

e) Tantos anexos como sean necesarios para reflejar la acción de la Escuela de Música durante el curso concluido (informes del profesorado, datos de matrícula, promociones, actas de las reuniones, noticias aparecidas en la prensa,).

Artículo 42.

1. La Memoria Anual, será aprobada por el Consejo Escolar.

2. Una vez aprobada por el Consejo Escolar, la Memoria Anual se hará pública y quedará a disposición de toda la comunidad educativa.

TÍTULO V

DEL USO DE LAS DEPENDENCIAS Y DEL MATERIAL

Artículo 43.

1. Las instalaciones de la Escuela permanecerán abiertas de lunes a viernes de 12:30 horas a las 21:30 horas durante el periodo escolar, reflejado por el Calendario Escolar.

2. Eskola garaitik kanpo, Musika Eskola goizez egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera, 08:00etik 14:00era.

3. Ohiko eskola jarduera guztiek nahitaez bete beharko dute aipatu ordutegia.

4. Ohiz kanpoko ekintzak izanez gero, instalazioak erabili litezke Musika Eskolako Zuzendaritzak hartarako baimenik emanez gero, ekintza horiek Musika Eskolaren helburuekin bat etorri gero. Hartarako, Musika Eskolako Zuzendaritzak behar beste baliabide jarriko du Musika Eskolaren instalazioak eskola komunitate osoak erabili ahal izateko.

5. Instalazioen eta materialaren erabilera horretarako onartzen den araudi bereziaren arabera arautuko da.

VI. TITULUA

MATRIKULA EGITEA ETA IKASLEAK ONARTZEA

44. artikulua. *Matrikulazioa.*

1. Matrikulazio egutegia.

Zuzendaritzak, administrazioarekin eta irakaslegoarekin batean, alde zuzenetik ezarriko du matrikulazio egutegia eta behar duen publikitatea emango dio interesa duten guztiek jakin dezaten.

Matrikulazio egutegiak prozesuaren une eta epe hauek jasoko ditu:

a) Barne matrikulazioko epeak: 5, 6 eta 7 urtetako haurrak (1. maila) eta 2., 3. eta 4. mailako ikasleak.

b) 8 urtetako haurren matrikulazioa eta espezialitatea aukeratzea:

Eskolako espezialitateak aurkezteko entzunaldia.

Ikasleen zerrendak publikatzeko eguna (ikasle bakoitzari dagozkion puntuekin).

Erreklamazioak egiteko epea.

Plazak espezialitateka esleitzeko eguna (zozketa).

8 urtetako haurren matrikulazioko epea.

c) Kanpo matrikulazioa:

Aurrematrikulazio epeak.

Plazak esleitzeko eguna (zozketa).

Onartutako ikasle berrien zerrendak publikatzeko eguna.

Erreklamazioak egiteko epea.

Ikasle berrien matrikulazio epea.

Lengoaia musikaleko mailan kokatu ahal izateko frogaren eguna.

2. Matrikulatzeko baldintzak.

a) Matrikulatzeko bete beharreko baldintzak.

«Hernani» Musika Eskola Publikoan sartu nahi duen pertsona orok baldintza hauek bete beharko ditu:

4 urte beteak izatea edo matrikulatzen den urtean barrena betetzea.

Zehaztutako epeetan aurrematrikula eta matrikula betetzea.

Ezarrutako prezio publikoak ordaintzea. Matrikulari dagokion prezio publikoa ezarrutako epean ordaintzen ez bada, matrikula hori galdu egingo da.

2. En periodo no escolar, la Escuela de Música tendrá sus servicios abiertos por las mañanas, de lunes a viernes de 08:00 a 14.00 horas.

3. Todas las actividades docentes ordinarias, se adaptarán inexcusablemente a este horario antedicho.

4. En caso de actividades extraordinarias, podrán ser utilizadas las instalaciones previa autorización de la Dirección del Centro, siempre que sean actividades que estén de acuerdo con los objetivos de la Escuela de Música. Para ello, la Dirección del Centro arbitrará los medios para que las instalaciones de la Escuela de Música puedan ser utilizadas por toda la comunidad educativa.

5. El uso de las instalaciones y material, se regulará mediante la normativa específica aprobada para tal fin.

VI. TITULUA

MATRICULACIÓN Y ADMISIÓN DEL AUMNADO

Artículo 44. *Matriculación.*

1. Calendario de matriculación.

La dirección, junto con la administración y el profesorado, establecerá con antelación el calendario de matriculación, y le dará la publicidad necesaria para conocimiento de todas aquellas personas interesadas.

El calendario de matriculación recogerá los siguientes plazos y períodos del proceso:

a) Plazos de matriculación interna: niñas y niños de 5, 6 y 7 años (1er nivel) y alumnas/os de 2.º, 3.º y 4.º nivel.

b) Matriculación y elección de especialidad de niñas y niños de 8 años:

Audición para dar a conocer las especialidades de la escuela.

Fecha de publicación de listas de alumnas y alumnos (con la puntuación correspondiente a cada una/o).

Periodo de reclamaciones.

Fecha de asignación de plazas por especialidades (sorteo).

Plazo de matriculación de niñas y niños de 8 años.

c) Matriculación de nuevo alumnado:

Plazos de prematriculación:

Fecha de asignación de plazas (sorteo).

Fecha de publicación de listas de nuevo alumnado admitido.

Periodo de reclamaciones.

Plazo de matriculación de nuevo alumnado.

Fecha para la prueba de nivel de lenguaje musical.

2. Condiciones de matriculación.

a) Condiciones para realizar la matrícula.

Toda aquella persona que quiera ingresar en «Hernani» Musika Eskola Publikoa deberá cumplir las siguientes condiciones:

Tener los 4 años cumplidos o cumplirlos durante el año en el que se lleve a cabo la matriculación.

Formalizar la prematrícula y la matrícula en los plazos determinados.

Abonar los precios públicos establecidos. El no abono del precio público correspondiente a la matrícula dentro del plazo establecido conllevará la pérdida de ésta.

Arauek onartzea. Matrikulak berekin dakar «Hernani» Musika Eskola Publikoak xedatutako arauak onartzea.

b) Matrikulatu ondoren bete beharreko baldintzak.

Irakasgai guztietako eskoletara etortzea. Ikasturteko eskolen %40ra faltatzeak matrikulazio eskubideak galtzea dakar berekin.

Eskola orduak aprobetxatzea, horretarako soinu tresnarekin praktikatzeko nahiz beste irakasgaiek eskatzen dituzten lanak egitea ezinbestekoa delarik.

c) Eskolak bete beharreko baldintzak.

Plazak eskaini ahal izatea. Aurrematrikulen kopuruak dauden plazak gaintzen dituen kasuetan, onarpena beherago aipatzen diren arauen arabera egingo da.

Eskolaren antolakuntza eta funtzionamenduaren inguruko informazioa eskatzaileei eskuratzea.

d) Matrikulazioa gauzatzeko era.

Matrikula gauzatu ahal izateko inprimaki bat bete beharko da, Musika Eskolako Idazkaritzan emango dena. Inprimaki horretan, ikasleak hautatutako espezialitatearen arabera, «Hernani» Musika Eskola Publikoaren Heziketa Proiektuak ezartzen dituen espezialitate, irakasgai eta mailak zehaztuko dira, derri-gorrezkoak nahiz hautazkoak.

Matrikula orria behar bezala bete eta sinatuta aurkeztu beharko da Musika Eskolako idazkaritzan, horretarako ezarritako epe barruan.

Matrikula orria, matrikulazio eskubideak ordainduko dituen kontu korrontearen jabeak sinatu beharko du.

Matrikula orria zehaztutako epe eta ordutegi barruan aurkezterik ez duten ikasle edo arduradunek beste edonor bidali ahal izango dute haien izenean matrikulazioa gauzatzera, orria ongi bete eta sinatua dagoela ziurtatuta.

3. Barne matrikulazioa: 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleak.

a) Matrikulazioa.

Aurreko ikasturtean Musika Eskolan matrikulatuta egon diren ikasleek ziurtatua izango dute ikasturte berrirako plaza. Ezarritako baldintzak bete eta epe eta era horietan matrikulatzea besterik ez dute egin beharko, urtean 8 urte betetzen dituzten ikasleek salbu.

b) Espezialitate aldaketak.

Bigarren mailako lehenengo ikasturtetik bigarrenera espezialitatea aldatu nahi duen ikasleak aukera hori izango du Eskolako plazarik baldin badu eskatutako espezialitatean.

Espezialitatea aldatzeko eskatu eta Eskolak plazarik eskainiko ez balu, itxaron zerrendan kokatuko da, eskaera egindako dataren arabera. Eskaeratzat hartuko dira 8 urtetako haurrei plaza esleitzerakoan egindako espezialitate aukerak, eta hauen atzetik kokatuko eskaera berriak.

Bigarren mailako bigarren ikasturtetik aurrera espezialitatea aldatzeko eskaera egin nahi duena ikasle berritza hartuko da ondorio guztietarako, eta aurrematrikula egiteaz gain, onartua izateko irizpide orokorrak aplikatuko zaizkio.

c) 8 urtetako haurrei espezialitateak esleitzea.

Aurreko ikasturtean 1. maila bukatu ondoren 2. mailako ikasketak hastear dauden ikasleei (ikasurte berria hasten den

Aceptación de las normas. La matrícula conlleva la aceptación de las normas establecidas por «Hernani» Musika Eskola Publikoa.

b) Condiciones tras realizar la matrícula.

Asistir a las clases de todas las asignaturas. La falta de asistencia al 40% de las clases del curso conlleva la pérdida de los derechos de matriculación.

Aprovechar las clases, para lo cual resulta imprescindible practicar con el instrumento así como realizar los deberes que se exigen en el resto de asignaturas.

c) Condiciones que deberá cumplir la Escuela.

Disponer de plazas. En los casos en los que las prematriculas superen las plazas disponibles, la admisión se realizará conforme a las normas que se relacionan más abajo.

Facilitar a quien lo solicite información sobre la organización y el funcionamiento de la Escuela.

d) Formalización de la matrícula.

Para formalizar la matrícula deberá cumplimentarse el impreso correspondiente, que se facilitará en la secretaría de la Escuela de Música. En dicho impreso se señalarán, de acuerdo con la especialidad elegida por la/el alumno, las especialidades, asignaturas y niveles, tanto obligatorios como optativos, establecidos en el Proyecto Educativo de «Hernani» Musika Eskola Publikoa.

El impreso de matrícula debidamente cumplimentado y firmado se entregará en la secretaría de la Escuela, dentro del plazo establecido al efecto.

El impreso de matrícula estará firmado por la persona titular de la cuenta corriente por la que se vayan a abonar los derechos de matrícula.

En caso de que las/los alumnos, o sus responsables, no puedan entregar el impreso de matrícula dentro del plazo y el horario determinado para ello, podrán hacerlo a través de otra persona, asegurándose de que el impreso se encuentra debidamente cumplimentado y firmado.

3. Matriculación interna: alumnas y alumnos de 1.º 2.º, 3.º y 4.º nivel.

a) Matriculación.

Las/los alumnos que durante el curso anterior hayan estado matriculadas/os en la Escuela de Música tendrán asegurada la plaza para el nuevo curso. Únicamente deberán cumplir las condiciones establecidas y formalizar la matrícula en el plazo y la forma que se determinen, salvo en el caso del alumnado que cumpla 8 años durante ese año.

b) Cambios de especialidad.

Las/los alumnos que al pasar del primer al segundo curso del segundo nivel deseen cambiar de especialidad, podrán hacerlo si la Escuela dispone de plazas en la especialidad solicitada.

En el caso de que la Escuela no disponga de plazas para el alumnado que haya solicitado cambio de especialidad, éste pasará a formar parte de la lista de espera, siguiendo el orden de solicitud. Serán consideradas solicitudes las elecciones de especialidad realizadas en la asignación de plazas a niñas y niños de 8 años, así como las nuevas solicitudes situadas tras éstas.

Las/los alumnos que quieran solicitar cambio de especialidad a partir del segundo curso del segundo nivel se considerarán a todos los efectos nuevas/os alumnos, que deberán formalizar la matrícula correspondiente, y se les aplicarán los criterios generales de admisión.

c) Asignación de especialidades a niñas y niños de 8 años.

Las/los alumnos que en el curso anterior hayan finalizado el 1er nivel y vayan a comenzar estudios del 2.º nivel (aquellas/os

urtean 8 urte betetzen dituztenei), eskola postua bermatuko zaie, baina ez da espezialitate jakinik ziurtatuko.

Eskolak espezialitate ezberdinetan eskaini ditzakeen plazak zozketaz esleituiko dira ikasle horien artean, lehentasun irizpide hauek kontutan izanik:

Ikasle berriei plazarik eskaini aurretik, ikasle hauei emango zaie plaza horiek hartzeko aukera. Aurretik izango dituzte, bakar-bakarrak, aurreko ikasturteetan espezialitatez aldatzeko eskaera egin eta aukera hori izan ez duten 2. mailako 1. ikasturteko ikasleak.

Aintzinasuna. Musika Eskolan matrikulatuz edo aurrematrikulatuz jarraian daramatzaten urte kopuruaren arabera, aintzinasun taldeak osatuko dira. Lehentasuna izango dute 4 ikasturte daramatzatenak eta ondoren 3, 2 edo ikasturte bakarrekoak. Aintzinasun talde horietako bakoitzean zozketaz erabakiko da espezialitatea aukeratzeko lehentasuna nork duen.

Ikasleren baten guraso edo arduradunen bat plazak esleitzeko zozketara agertzen ez bada, zozketaz osatutako zerrendaren bukaeran kokatuko da zuzenean. Ardura hori beste norbaitengan utzi ahal izango da nolnahi ere.

Zozketa egin ondoren, plazak esleitzerakoan, Musika Eskolako arduradunek garbi adieraziko dute zein espezialiterako zenbat plaza dauzkan aukeran ikasle bakoitzak. Era berean, ikaslearen arduradunak adierazi beharko du zein espezialitate nahi duen, nahiz eta plazarik ez egon, adierazpen hori eskaeratzat hartua izango baita plaza sortzen den unean espezialitatez aldatzeko.

Gutxienez zozketa egin baino 7 egun lehenago Eskolaren atariko iragarki taulan agertuko dira aintzinasunaren arabeko taldeak, publiko egiten direnetik 3 eguneko epea irekiko delarik erreklamazioak egin ahal izateko. Erreklamazio horiek idatziz zuzenduko zaizkio Musika Eskolako Zuzendariari.

Zozketa egiten den unetik ez da erreklamaziorik onartuko.

Zozketa zerrenda errespetatuko da.

Plaza esleitutakoan, Musika Eskolako bulegoan gauzatu beharko da matrikula, ezarritako epe eta baldintzatan.

4. Ikasle berrien matrikulazioa.

a) Aurrematrikula.

Harrera berriko ikasle gaiek nahitaez eskolan matrikulatzeko eskaera edo aurrematrikula bete beharko dute horretarako ezarritako epe eta eratan. Eskolak eskaini ditzakeen plazak eta jasotako eskaeren arabera esleituiko dira lehendabizikoak, beharrezkoak diren zozketak eginda.

b) Plazak esleitzea.

Espezialitate jakin baterako dagoen eskaera guztiari erantzun ahal izateko adina plaza dagoenean, zuzenean esleituiko dira hauek eta onartutako ikasleek zerrendan publikatuko.

Plaza baino aurrematrikula gehiago baldin badago, ikasleek onarpena honako irizpide hauen arabera egingo da:

Hernanin erroldatuak, lehentasun irizpide hauen arabera:

Aurreko ikasturtean aurrematrikula eginga izan arren, kanpoan gelditu zirenak, leku baino eskaera gehiago jaso zirela eta.

Aurtengo ikasturteko aurrematrikula egin dutenak.

que vayan a cumplir 8 años durante el año en el que comienza el curso) tendrán garantizada la plaza en la escuela, aunque no se les asegurará una especialidad determinada.

Las plazas que la Escuela pueda ofertar en las diferentes especialidades se asignarán por sorteo entre estas/os alumnos, atendiendo a los siguientes criterios de prioridad:

Antes de llevar a cabo la asignación de plazas al nuevo alumnado se dará la opción de elegir estas plazas a estas/os alumnos. Tendrá prioridad sobre ellas/ellos solamente al alumnado de 1er curso del 2.º nivel que habiendo solicitado cambio de especialidad en el curso anterior no lo hubiera obtenido.

Antigüedad. Se formarán grupos de antigüedad en función del número de años consecutivos de matriculación o prematriculación en la Escuela de Música. Tendrán prioridad quienes lleven 4 cursos, y tras ellos los que lleven 3, 2 o un solo curso. En cada uno de los grupos de antigüedad se decidirá por sorteo quién tendrá prioridad para elegir la especialidad.

En el caso de que al sorteo para la asignación de plazas no se presente ni la madre o padre, o algún responsable de la/del alumno, ésta o éste pasará al último lugar de la lista conformada por sorteo. En cualquier caso, esta responsabilidad puede delegarse en otra persona.

Realizado el sorteo, para la asignación de las plazas las/los responsables de la Escuela de Música informarán claramente del número de plazas por especialidad a las que puede optar cada alumna o alumno. A su vez, la persona responsable de la/del alumno deberá manifestar qué especialidad quiere elegir, aunque en ese momento no haya plazas, ya que esta manifestación será considerada como solicitud para el cambio de especialidad cuando surja una plaza.

Los grupos de antigüedad se publicarán en el tablón de anuncios de los soportarles de la Escuela de Música al menos 7 días antes del sorteo, y a partir de su publicación se abrirá un plazo de 3 días para realizar reclamaciones. Las reclamaciones se dirigirán por escrito a la/al Director de la Escuela de Música.

No se admitirán reclamaciones a partir de que se efectúe el sorteo.

Se respetará la lista del sorteo.

Una vez efectuada la asignación de plazas, se formalizará la matrícula en la secretaría de la Escuela de Música, cumpliendo las condiciones y los plazos exigidos.

4. Matriculación de nuevo alumnado.

a) Prematricula.

Las/los alumnos de nuevo ingreso deberán obligatoriamente realizar la solicitud de matrícula o cumplimentar la prematricula en el plazo y la forma establecidos al efecto. Las primeras plazas se asignarán en función de las plazas que pueda ofertar la escuela y las solicitudes presentadas, realizando los sorteos necesarios.

b) Asignación de plazas.

Cuando exista suficiente número de plazas para responder a la demanda de una determinada especialidad, estas se asignarán directamente, y se publicarán en la relación de alumnos/os admitidas/os.

En el caso de que existan más prematriculas que plazas, la admisión de alumnas/os se llevará a cabo de acuerdo a los siguientes criterios:

Empadronadas/os en Hernani, con los siguientes criterios de preferencia:

Quienes, aun habiendo realizado prematricula en el curso anterior, no obtuvieron plaza por ser la demanda superior a las plazas ofertadas.

Quienes hayan realizado prematricula para el presente curso.

Aurtengo ikasturteko aurrematrikula egina izanik, eskolan soinu tresnako espezialitatearen batean matrikulatuta, bigarren-erako eskaera egin dutenak.

Hernanin eroldatu gabeak, lehentasun irizpide hauen arabera:

Aurreko ikasturtean aurrematrikula egina izan arren, kanpoan gelditu zirenak, leku baino eskaera gehiago jaso zirela eta.

Aurtengo ikasturteko aurrematrikula egin dutenak.

Aurtengo ikasturteko aurrematrikula egina izanik, eskolan soinu tresnako espezialitatearen batean matrikulatuta, bigarren-erako eskaera egin dutenak.

Lehentasun irizpideen arabera eskaerak taldekatuta, plazak taldez talde esleitu dira. Talderen batean jasotako eskaera kopurua eskain dakizkiokeen plaza kopurua baino handiagoa baldin bada, zozketa bidez erabakiko da nori esleitu plaza horiek.

Jendaurreko zozketan, alfabetikoki aurkeztuko da eskaerazaleen zerrenda lehentasun taldeen arabera eta, zozketaz zenbaki bat aterata, zerrendan hainbatgarrena dagoena izango da zerrendaren buru geratuko dena, haren ondoren datozenak jarraituko dutelarik hurrenez hurren, eta zerrenda alfabetikoa amaitutakoan ostera burutik hasiko.

Plazarik gabe geratzen diren eskaerak itxaron zerrendan jarriko dira, zerrenda hori ere zozketaz erabakiko delarik, onartuenarekin batera. Plaza berriak sortuko balitz, zerrenda horren arabera eskainiko zaie plaza hori eskatzaileei.

Zozketaz erabakitako zerrenda hauek indarrean den ikasturterako bakarrik balioko dute.

Zerrenda hauek zozketa egin eta hurrengo egunean egingo dira publiko eskolaren atariko iragarki taulan, behin-behineko izaeraz. Hiru eguneko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko, eta epe hori igarota erreklamazioak aurkeztu ez bada, zerrendek behin betiko izaera izango dute.

b) Matrikulazioa.

Onartuen zerrendak behin betiko izaera hartzen duenean, ezarritako epe eta eratan gauzatu beharko dute ikasle berriek matrikula.

c) Mailan kokatzea.

8 urte edo gehiago dituzten ikasle berriek, lehenago musika ikasketarik egin ez badute, 2. mailan matrikulatuko dira espezialitateak agintzen dituen derrigorrezko irakasgaietan.

Aldez aurretik musika ikasketak burutu dituzten ikasle berriek hauek zeintzu diren adierazi beharko dute matrikulatzeko garaian, dagokien mailan kokatu ahal izateko.

Lengoaia musikala edo honen pareko ikasketak eginak dituztenek (solfeoa esate baterako), dagokion ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte edo Lengoaia musikaleko proba egin, maila hori ziurtatu ahal izateko. Horretarako aldez aurretik zehaztuko du Musika Eskolak proba hori egiteko eguna eta ordua.

5. Matrikulazio tasak eta ordainketak.

Matrikulazio tasak Hernaniko Udalak ezarriko ditu ikasturtero, zergen ordenantzan (Administrazio zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskala).

Tasa hauen ordainketa banku-helbideraketa bidez gauzatu da, Udalak ezarritako aldietan.

Ordainketa egitea derrigorrezkoa da matrikula egin ahal izateko. Ikasturtean zehar, ikasle guztiek egindako matrikularen

Quienes, habiendo realizado prematrícula para el presente curso estén matriculadas/os en alguna especialidad instrumental y hayan solicitado una segunda especialidad instrumental.

No empadronadas/os en Hernani, con los siguientes criterios de preferencia:

Quienes, aun habiendo realizado prematrícula en el curso anterior, no obtuvieron plaza por ser la demanda superior a las plazas ofertadas.

Quienes hayan realizado prematrícula para el presente curso.

Quienes, habiendo realizado prematrícula para el presente curso estén matriculadas/os en alguna especialidad instrumental y hayan solicitado una segunda especialidad instrumental.

Agrupadas las solicitudes en función de los criterios de preferencia, las plazas se irán asignando por grupos. En caso de que el número de solicitudes presentadas para un grupo sea superior al número de plazas que puedan ofertarse, dichas plazas se asignarán por sorteo.

La lista de aspirantes se presentará ordenada alfabéticamente y por grupos de preferencia, y se extraerá un número mediante sorteo, que será público. Será la persona que posea ese número quien pase a la cabeza de la lista, que se reordenará a partir de ésta, y una vez concluida la lista alfabética se volverá al principio.

Las solicitudes que no obtengan plaza pasarán a la lista de espera, que se formará así mismo por sorteo, junto con la de admitidas/os. Si surgieran nuevas plazas se asignarían a las/los aspirantes siguiendo el orden de esta lista.

Las listas conformadas mediante sorteo serán válidas únicamente para ese curso.

Las listas se harán públicas al día siguiente del sorteo, en el tablón de anuncios de los soportales de la Escuela, con carácter provisional. Se abrirá un plazo de tres días para presentar las reclamaciones que se consideren oportunas y si transcurrido dicho plazo no se presenta ninguna reclamación, las listas pasarán a ser definitivas.

b) Matriculación.

Cuando la relación de admitidos sea definitiva el nuevo alumnado deberá formalizar la matrícula en el plazo y la forma establecidos.

c) Determinación de nivel.

El nuevo alumnado de 8 años o más que con anterioridad no haya realizado estudios de música, se matriculará en 2.º nivel en las asignaturas obligatorias que exija la especialidad.

El nuevo alumnado que anteriormente haya realizado estudios de música indicará en el impreso de matrícula cuáles son éstos estudios, para su integración en el nivel correspondiente.

Quienes hayan cursado lenguaje musical o estudios equivalentes (solfeo), deberán presentar los correspondientes certificados o realizar la prueba de lenguaje musical para certificar el nivel, para lo cual la Escuela de Música determinará previamente la fecha y la hora de la prueba.

5. Tasas de matriculación y abono de la matrícula.

El Ayuntamiento de Hernani determinará las tasas de matriculación para cada curso en las ordenanzas fiscales reguladoras de las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades municipales.

El abono de las tasas se realizará por domiciliación bancaria, en los periodos establecidos por el Ayuntamiento.

El abono de la tasa será obligatorio para formalizar la matrícula. Durante el curso el alumnado deberá abonar la totalidad

arabera dagokien prezio osoa ordaindu beharko dute. Ezarritako epeetan ez ordaintzeak matrikula eskubideak galtzea suposa lezake.

Onurak fiskaletarako, Zergen Ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

Ordenantzaren 10. artikuluko 3. atalaren arabera, subjektu pasiboari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzu publikoa eman edo egiten ez denean, zenbatekoa itzuli beharko zaio.

45. artikulua. *Baja ematea.*

Ikasle orok edo, adin txikiko kasuan, hauen arduradunek, aurkez lezaketek baja emateko eskaera.

Edozein ikastaro edo eskolatan baja hartu behar dela jakinaraziz gero, ordea, ez dira kuotak itzuli edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak, ikasturte erdia baino iraupen luzeagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da mediku-agiriez frogatzea alegatutako gaixotasuna.

46. artikulua. *Ordutegiak.*

Eskola ordutegiak finkatzerakoan eta Musika Eskolaz bestelako jardueri dagokienez, «Hernani» Musika Eskola Publikoak lehentasuna emango die, bakar-bakarrik, derrigorrezko hezkuntza eskaintzen duten Hernaniko ikastetxeen ordutegiei, ez besteri.

Soinu tresnako eskolen ordutegiak adostasunez jarriko ditu irakasle bakoitzak dagokion ikaslearekin. Adostasunera iristerik ez dagoenean, Musika Eskolako Zuzendaritzak erabaki ahal izango du ordutegi hori.

Ordutegiak urtero aldatu daitezke.

Taldeko irakasgaien ordutegiak (talde instrumentalak eta joera ezberdinak), ikasturtero irakasleek ezarriko dituzte eta finkoak izango dira.

Taldez aldatzeko eskaeren arabera osatutako itxaron zerrenda sortzen den unetik errespetatuko da aldaketak egiteko aukera dagoen arte edo, ezinbestean, Lengoaia musikaleko ikasketak amaitu arte. Eskaera bati bere aldeko erantzuna ematen zaion unean, eskatzaileak aldaketa onartzen badu, bere horretan utziko, baina beti ere itxaron zerrendatik desagertuko da. Berrito taldez aldatu nahi duen ikasleak eskaera berria egin beharko du hortaz.

Araudi honek, orain artean indarrean egon den Musika Eskolako Araudia Orokor zaharra indargabetzen du.

AZKEN XEDAPENA

Ereglamendu hau indarrean sartuko da testua osotasunean behin betiko onarturik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 15 egunera, eta indarrean egongo da Hernaniko Udalak, haren titular gisa, aldatzea edo indargabetzea erabakitzen duen arte.

del importe que le corresponda en función de la matrícula realizada. El no abono de la tasa en los plazos establecidos puede suponer la pérdida de los derechos de matrícula.

Para la concesión de bonificaciones fiscales se aplicará el artículo 7 de las ordenanzas fiscales.

De conformidad con el apartado 3 del artículo 10, cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el servicio público o la actividad administrativa no se preste o desarrolle, se procederá a la devolución del importe correspondiente.

Artículo 45. *Bajas.*

Cualquier alumna/o, y en el caso de menores de edad sus responsables, pueden solicitar la baja.

En cualquier caso, la comunicación de la baja no implica la devolución o anulación de las cuotas. Pueden considerarse excepción a este supuesto aquellos casos de enfermedad grave cuya duración se acredite que es similar o superior a la de la mitad del curso. La decisión sobre la baja la tomará la Junta de Gobierno Local y será imprescindible acreditar la enfermedad alegada mediante informe médico.

Artículo 46. *Horarios.*

Para fijar los horarios de las clases, en cuanto a otras actividades diferentes a las de la escuela de música, «Hernani» Musika Eskola Publikoa dará prioridad única y exclusivamente a los horarios de los centros escolares de educación obligatoria de Hernani.

Los horarios de las clases de instrumento se acordarán entre el docente y sus alumnas/os. De no existir acuerdo, el horario podrá ser fijado por la Dirección de la Escuela de Música.

Los horarios pueden variar de un curso a otro.

Los horarios de las asignaturas grupales (grupos instrumentales y diferentes tendencias) se establecerán para cada curso por el profesorado, y serán fijos.

La lista de espera conformada de acuerdo a las solicitudes de cambio de grupo se respetará desde el momento en que se cree hasta que exista posibilidad de realizar el cambio o, en todo caso, hasta la finalización de los estudios de Lenguaje musical. Cuando se responda favorablemente a una solicitud, la persona solicitante podrá aceptar el cambio, con lo que se le cambiará de grupo, o no aceptarlo, continuando en el que esté, pero desapareciendo de la lista de espera. Por tanto, la/el alumno que quiera volver a cambiarse de grupo deberá realizar una nueva solicitud.

Este Reglamento de la Escuela de Música, vigente hasta ahora.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Reglamento entrará en vigor a los 15 días de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del texto íntegro aprobado definitivamente y permanecerá en vigor hasta que el Ayuntamiento de Hernani, como titular del mismo, acuerde su modificación o derogación.